

Eskola Kirol Egokitua Gipuzkoan 2020- 2021 Memoria

“DENOK BERDINAK, DENOK EZBERDINAK”



GUZTIONTZAKO KIROLA

HELBURUAK

Proiektu honek EAEn derrigorrezko eskolaldi garaian dauden eskolaume guztientzat planteatuta dagoen Eskola Kiroleko programaren **helburu berberak** jarraitzen ditu, baina **desgaitasun egoeran dauden haur eta gazteen beharretan oinarrituta:**

- **Gipuzkoako eskualde guztietako neska-mutilek eskola kirolean parte hartzea erraztea.**
- **Desgaitasuna duten neska-mutilen eta haien senideen artean kirola eskuratzeari dagokionez gero eta nabarmenagoa den eskaria betetzea.**
- **Ariketa fisikoaren sozializazio-efektua sustatzea, kolektiboaren beharretara egokitutako jardueren bidez.**
- **Psikomotrizitatea, oinarrizko mugimen-trebetasun eta egoera fisikoaren alderdi batzuk hobetzea, haur horien osasuna eta bizi-kalitatea hobetzeko.**
- **Osasun-ohiturak hobetzen eta jarduera fisikoari atxikitzen laguntzea.**
- **Kolektibo honen autoestimua eta segurtasuna eta familien konfiantza hobetzea.**
- **Kirol-praktika normalizatua eta inklusiboa bultzatzea, ahal dela eskola-populazio osoan.**

Programaketa orokor batetatik abiatuta, talde bakoitzeko haur taldearen ahalmenak eta gaitasunak baloratuko dira, eta horren arabera, talde bakoitzeko zehaztasuna bilatuko da, programaren **hiru helburu nagusiak mantenuz, sozializazioa, autonomia eta motrizitatea.**

Horretarako, ariketa, joko eta kirol deberdinak erabiliko dira, dibertsitatea kontutan hartuz. Ariketa proposamen hoi artean, aurkituko ditugu: psikomotrizitate ariketak, musika ariketak, gorputz adierazpenekoak, jokoak, aurrekirolak eta danak haurren beharretara egokituta, dibertsioaren ardatz nagusia ere galdu gabe.

PROGRAMAREN EZAUGARRIAK

Eskola kiroleko programak dituen helburu berberak lortzeko asmoarekin, desgaitasuna duten gazteei ere espezializatuago dauden teknikariek astean 2 kirol-saio egiteko aukera eman nahi zaie EKE programaren bitartez, ondoren, herri- mailan dauden azpi- egitura eta kirol- ohituren arabera, kirol espezifiko/ egokituren bat praktikatu nahi duten gazteei elkarte ezberdinetarako orientazio eta akonpainamendua ere jorratzen delarik.

Eskualdeka Gipuzkoa guztian saretzen ari garen EKE programa honetan, zenbait udalerritako kirol- ekipamenduak erreserbatuta izaten ditugu ikasturtez- ikasturte gure jarduna aurrera eramateko eta programan parte hartzen duten gazteak, erreserba hauen arabera taldekatzen ditugu.

Talde bakoitzak monitore nagusi bat dauka ikasturteko plangintza egin, saioak aurrera eraman, planteatutako helburuak betetzen diren edota birplanteatu egin behar diren ikusi eta partehartzaileen ebaluazio jarrai bat egiteko, programaren koordinatzaile nagusiarekin informazioa modu jarraian elkar-trukatu beharraz gain; funtzio hauek bete ahal izateko teknikari honen kontratuan asteroko prestakuntza- orduak gehitzen zaizkio; monitore nagusiaz gain, gainera, talde bakoitzean laguntzaile funtzioa daukaten beste hainbat monitore daude kontratatuta, saioak aurrera modu egoki eta eraginkorrean eramateko. Bestalde, koordinatzaile bat dago kontratatuta, taldeak gainbegiratzeaz aparte, herri- edota eskualde- mailako erakunde, guraso, tutore, ikastetxe, osasun eragile, etab. ekin kontaktuan dagoena, aholkularitza eta arreta zerbitzuak eskaintzeko.

EKE programan parte- hartzeko interesa duen edozein erabiltzaile berriri, lehenik eta behin orientazio pertsonalizatua egiten zaio: gaztearen ezaugarriak, adina eta interesak aztertu ostean, bere beharretara gehien egokitzen den kirol- jarduera

eskaintzen zaio, bere bizilekutik gertu aktibo dauden taldeei erreparatu ostean eta bere beharretara egokitutako programazio batekin.

Gai konplexuenetako bat talde bakoitzeko erabiltzaileen mendekotasun maila izaten da, behar den laguntza kopurua eta arreta ratioa zehazten dituen. Hori dela eta, askotarikoak dira taldeak, udalerrri bakoitzaren eskaeraren arabera.

EKE programak eskola- egutegia jarraitzen du eta urria- ekaina bitartean garatzen da.

Eskola kirol egokituaren programaren barruan, eskualde bakoitzeko udaletxeekin dugun lan- hitzarmenen arabera eta tokian- tokiko kirol eragileek izaten dituzten interesen arabera, oinarrizko programa osatzen duten beste ekintza batzuk ere burutzen ditugu:

- Eskola-sentsibilizaziorako proiektua (Gipuzkoa) - **“Desberdintasuna bizi”**: LH4- DBH4 bitartean dauden ikasleekin desgaitasuna ezagutu eta bizitzeko saioak antolatzen dira eskola- orduetan.
- Udalaren kirol instalazioetako langileen prestakuntza ematen dugu, **desgaitasunari arreta egokia emateko formakuntza**- beharra dutela adierazten diguten langileei.
- **Udaleku irekien eskaintza** ematen da.
- **Asteburuetako kirol-topaketak eta aire zabaleko jarduerak** burutzen dira, eskualdeka: jardueren artean, alde batetik naturako jarduerak sustatzen dira, hala nola surfa, eskalada edo mendia, eta bestalde, kirol modalitate ezberdinen sustapen jarduerak antolatzen dira, hala nola futbol, igeriketa, eskubaloia, goalballa, boccia, slaloma, etab.

2020/21 ANTOLAKUNTZA

2020- 2021 ikasturtean Gipuzkoa guztian **14 talde espezifiko** izan ditugu aktibatuta *Eskola Kirol Egokituko* programaren barruan, **44 erabiltzailerekin**, eta **hainbat inklusio prozesutan hartu dugu parte**, aholkularitza eman eta arreta egokia bermatzeko monitore espezifikoak bideratuz: Irungo Txingudi ikastetxeko **6 erabiltzaileri apoioa** egin zaie bere talde burbuietan, eta **2 erabiltzaileri apoioa** egin zaie bere ikastetxeko JolasHezi programan, Ataungo Joxemiel Barandiaran eta Zarauzko Salvatore Mitxelena ikastoletan.

Aipatu beharra daukagu gainera, *Oarsoaldeako* eskualdean, GKEFren aterkipean dagoen **Mindara Elkarateak** Oreretan *Eskola Kirol Egokituko programa* garatu eta kudeatzen duela, eta bi erakundeon artean elkarlanean aritzen garela aisialdi aktiboko proiektuak aurrera eramateko, sentsibilizazio jardunaldiak garatzeko, etab. Mindara elkarateak ikasturte honetan **44 erabiltzaileri eman die zerbitzua**.

Debagoienan, GKEFtik aholkularitza teknikoa emateko zereginean aritu gara ikasturte honetan.

LEK egitura barruan, iaz hasitako formakuntza saioei jarraipena eman diegu eta EKEko taldeetako monitoreez gain, eskualdeko kirol- koordinatzaile eta Ekeko monitoreek ere hartu dute parte prestakuntza saioetan.

Bestalde, aipatu beharra daukagu *Urola erdia* (Azpeitia- Azkoitia) eta *Debararrenan* (Eibar) EKE martxan jartzeko gestio lanetan aritu garela.

Laburpen Taula

UDALERRIA K	ERABILTZAIL E KOPURUA	1/1 ARRETA BEHARR A	MONITORE KOPURUA	TALDE KOPURU A	ERABILITAKO INSTALAKUNTZA K	ASTEROK O SAIO KOPURUA
Irun	17	6	4	5	Eguzkitza Txingudi	5
Donostia	12	6	4 (+praktiketako 2 ikasle)	4	Paco Yoldi Intxaurrenondo	4
Andoain	3	3	3	1	Allurralde	1
Urnieta	2	2	2	1	Egape	1
Urretxu-Legazpi	4	2	3	1	Aldiri Bikuña	2
Billabona	4	3	2	2	Olaederra	2
Ordizia	5	2	2	2	Majori	2
Beasain	2	2	1	1	Antzizar	2
Tolosa	7	3	3	2	Usabal Laskorain	3
GUZTIRA	56	29	24	19		22

Eskola kirol egokituko programan parte hartzen duten erabiltzaile eta talde guztien dibertsitatea kontutan izanda, ikasturte hasieran programaren koordinatzaile orokorraz gain, zonalde ezberdinetako taldeak koordinatzeko monitorea nagusiak izendatzen dira.

Talde bakoitzak, hortaz, erreferentziako monitorea nagusia izateaz gain, umeen beharren arabera apoioko monitorea izan ditu.

Monitore nagusiak edota monitore taldeak ikasturteko helburuak eta edukiak programatuko dituzte, horren arabera, Unitate didaktiko desberdinak lantzeko asmoz, *aniztasuna* eta *egoera jolastuak* ardatz hartuta.

Taldeko monitore nagusiak, astean dituen saio praktikoez gain, astean beste bi ordu dauzka ordainduta saioak prestatu eta umeen balorazio jarrai bat egiteko. Eskolak, instalakuntzak, gurasoak, haurrak eta erakunde ezberdinekiko harremanen koordinazioaz, Eskola kirol egokituko programaren koordinatzaile orokorra arduratuko da, GKEFko gainontzeko teknikari eta langileen laguntzarekin batera.

<i>Giza baliabideak 2020- 2021</i>	
<i>Monitore nagusiak</i>	6
<i>Apoioko monitoreak</i>	7
<i>Praktiketako ikasleak (EHU, HUEZI)</i>	8
<i>Koordinatzaile orokorra</i>	1
<i>Zuzendaritza+ Administrazioa</i> (kuotak, kirol azpiegituren eskaerak, kirol materiala, udaletxeekin lan-hitzarmenak, foru aldundiarekiko harremanak, etab.)	3

